



# EAEko HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANA / 2020

---

## EGOERAREN TXOSTENA



# ZER DA **HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANA?**

Dokumentu hau EAEko 2020rako Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren tarteko berrikuspenaren laburpena da. Agiri hori 2018an egin zen 2016ko amaierako diagnosi- eta egoera-datuekin. Informazio gehiago behar izanez gero, kontsultatu berrikuspen osoa [euskadi.eus](http://euskadi.eus) atarian.

Gobernu Kontseiluak 2015eko martxoaren 10ean onartuta, **EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020rako Planak** jasotzen ditu 2020 baino lehen Euskadik hondakinen alorrean lortu behar dituen helburuak.

**8 Printzipiotatik** abiatuta, Planak **5 Helburu estrategiko** ezartzen ditu, eta horiek **5 Jarduera-programatan** zehazten dira; horien bitartez, **aldi baterako 33 helburu partzial** eta garatu beharreko **155 jarduera zehatz** egituratzen dira.

## 8 PRINTZIOPIO

**Gizakien osasuna eta ingurumena babesteko printzipioa**

**Kudeaketa eraginkorren printzipioa**

**Autosufizientzia-, gertutasun- eta unibertsalitate-printzipioak**

**Gardentasun- eta partaidetza-printzipioa**

**Hondakinen kudeaketako hierarkiaren printzipioa**

**Bizi-zikloaren printzipioa eta baliabideen ekonomia zirkularra**

**Jasangarritasunaren, merkatu berdearen sustapenaren eta enplegu-sorreraren printzipioak**

**ekoizlearen erantzukizun zabalduaren eta eragile guztien erantzunkidetasun printzipioa**

## 5 HELBURU ESTRATEGIKO

**1 HE Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaitea 2020rako, erreferentzia urtetzat 2010 hartuta; baita hondakinen arriskugarritasuna jaitea ere.**

**2 HE Hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa gutxienez % 75ekoa izatea 2020an, eta bilketa-sistema espezifikoak ezartzea arazo bereziak eragiten dituzten hondakinentzat.**

**3 HE Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea 2020rako, bidez batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez.**

**4 HE Hondakinen ezabapena optimizatzea, hondakin primarioen isurpenarekin amaituz, eta isurpenok minimizatzekeo bitartekoak garatuz gertutasun eta autosufizientzia printzipioak ezartzea exijituz hondakinen balorizazio eta ezabapenean, betiere baldintza baliokideetan eta martxan dauden zabortegeien eragina minimizatuz egin badaiteke.**

**5 HE Hondakinen arloko informazioa eta gardentasuna hobetzea; hondakinen arloko kudeaketa administratiboa erraztu eta bizkortzea, hondakinen arloko araudiak irekitako aukerak baliatuta; eta merkatu berdea eta enplegu-sorrera sustatzea.**

## 5 JARDUERA PROGRAMA

**PREBENTZIO PROGRAMA**

8 helburu  
48 jarduera

**GAIKAKO BILKETA ETA BEREIZKETA PROGRAMA**

6 helburu  
15 jarduera

**BERRERABILPEN, BIRZIKLAPEN ETA BALORIZAZIORAKO PRESTATZEKO PROGRAMA**

13 helburu  
59 jarduera

**EZABAPENA OPTIMIZATZEKO PROGRAMA**

2 helburu  
10 jarduera

**ADMINISTRAZIOAREN EREDUGARRITASUNAREN ETA GOBERNU EGOKIAREN PROGRAMA**

4 helburu  
23 jarduera


# HELBURUEN BETETZE MAILA



## 1 HELBURU ESTRATEGIKOA

**Sortutako hondakinen kopuru totala % 10 jaitea 2020rako, erreferentzia urtetzat 2010 hartuta; baita hondakinen arriskugarritasuna jaitea ere**

2010eko datuei 2013az geroztik egindako kontabilitate-aldaketa metodologikoak aplikatuz (EBn egindako aldaketa estatistikoekin bat etorrituz), hondakinen sorrera % 6,8 murriztu da, eta, hortaz, bide erdian geratu gara legeak 2020rako exijitzen duen % 10eko murrizketari begira.




## 2 HELBURU ESTRATEGIKOA

**Hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa gutxienez % 75ekoa izatea 2020an, eta bilketa-sistema espezifikoak ezartzea arazo bereziak eragiten dituzten hondakinentzat**

Gaikako bilketa % 57era iritsi zen 2016ean (% 75 2020an), eta hori oso baldintzatuta dago biohondakinen eta ontzi arinen jokabideagatik.

Hondakin industrialen artean, aurrerapena paraleloa da birziklapenaren aldeko apustuarekin; hala, egoera finkatuago dago hondakin arriskugarrien artean, kudeatzaileei ezarritako exijentzien eraginez.






### 3 HELBURU ESTRATEGIKOA

#### Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizaziorako prestatzea 2020rako, bidez batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea emanez

Berrerabilpen eta balorizaziorako (material eta energetikoa) prestatzen diren hondakinak % 60,5 dira, eta, hortaz, 2020rako ezarritako helburua -% 60- gainditzen da; nolana ere, korrante industrial batzuen birziklapen-tasa jaitsi da (ore eta paperaren hondakinak, altzairutegietako zepak, AEEHak).




### 4 HELBURU ESTRATEGIKOA

#### Hondakinen ezabapena optimizatzea

2010 urtearen aldean, hondakinen isurpena % 2,6 murriztu da, baina korrante industrial arriskugarri (desugerketako azidoak, ebaketa-likidoak, olioak, eta abar) eta ez-arriskugarri (ore eta paperaren lohiak, altzairutegiko zepak, eta abar.) batzuen ezabapen tasak okerrera egin du.

Hobekuntzarako tarte handia detektatzen da masa moduan bildutako hiri-hondakinen kasuan eta aurretiko tratamendurik gabeko isurpenen kasuan (246.984 t).



### 5 HELBURU ESTRATEGIKOA

#### Informazioa eta gardentasuna hobetzea; kudeaketa administratiboa erraztu eta bizkortzea; eta merkatu berdea eta enplegu-sorrera bultzatzea

Azpimarratzekoa da informazioaren kalitatean lortutako aurrerapena (inbentarioak, LER kodeen asignazioa, eta abar.), eta baita lekualdaketen kontrolaren gainean ere lortutakoa.

HPKP 2020rekin bat etorritik, beste plangintza-tresna batzuen bidez lan egin da, bai Europakoak (VII. IEP, Ekonomia Zirkularren Plana) eta bai estatukoak (Estatuko Prebentzio Plana, EPMAR) eta EAEkoak (IV. IEP, HOen 2015eko Gida, Lurzoru Kutsatuen etorkizuneko Plana).

# 2015etik EGINDAKO AURRERAPENAK

## PREBENTZIOA

### 2015etik egindako aurerapenak

**Konpostatze komunitarioari** buruzko 1/2015 instrukzioa onartzea.

**Konpostatzea** foru planetan txertatzearen alde egitea.

**Elikagaien alferrikako galera** prebenitzeko jardunbide egokien dokumentua.

**Hiri-hondakinen** prebentzio eta gaikako bilketari buruzko sentsibilizazio-kanpaina bat diseinatzea.

**Ontzien** ekodiseinurako eta herritarren sentsibilizazioaren alorrean kolaboratzeko hitzarmena Ecoembes eta Ecovidriorekin.

MAPAMArekin batera lan egitea **azpiproduktuaren** kontzeptuan aurrera egiteko.

**Ibilgailuen** tratamendu-sektorearekin lan egitea berrerabilpena sustatzeko eta kudeaketaren hierarkia aplikatzeko.

Ekonomia zirkularra sostengatzeko lerro berria DMAPTVaren tokiko erakundeentzako diru-laguntzetan, zehazki prebentzio-jardueretara zuzendutakoetan.

## GAIKAKO BILKETA ETA BEREIZKETA

### 2015etik egindako aurerapenak

“Hondakinen arloko **tresna ekonomikoen** diseinua” izeneko dokumentua.

**Hiri-hondakinen tasa** kalkulatzeko metodologia, sortutakoaren arabera ordainketa kontsideratuta.

Zaborteziak eta beste kudeatzaile batzuk ikuskatzeko kanpaina.

EAEko **hiri-hondakinen** kudeaketa hobetzeko eta neurriak ezartzeko gida teknikoa.

Irtenbide bat definitzea **amiantoa** Garbigunetan kudeatzeko.

Hondakin industrialak Bilboko **portuan** gaika biltzeko proiektua eta gomendioen jakinarazpena.

**Zepak** kudeatzeko gida, eta Dekretu berriaren oinarri teknikoak.

## BERRERABILPENA, BIRZIKLAPENA ETA BALORIZAZIOA PRESTATZEA

### 2015 etik egindako aurerapenak

EEHen balorizaziotik datozen **agregakin birziklatuak** erabiltzeko betekizunei buruzko 2015eko urtarrilaren 12ko Agindua onartzea.

**Zepi** buruzko 34/2003 Dekretua berraztertzea, egindako arau-aurreko ikerketarekin bat datozen beste erabilera batzuk baimentzeko.

**Borondatezko akordioak** funtsezko sektoreekin (papera, galdaketa); eta araztegiekin egindako lana.

Balorizazioari lotutako **frogatze-proiektuak**: galdaketako hareak eta finak, papergintzako lohiak, araztegieta lohiak, birrinketako frakzio arina, EEHak, eta abar.

**Itsasontziak** desegiteko irizpideen gida.

## EZABAPENAREN OPTIMIZAZIOA

### 2015 etik egindako aurerapenak

**Zabortegeien** baimenak aldatzea, balorizatu daitezkeen hondakinen isurpena mugatzeko.

**Isurpenaren kanona** diseinatzea eta Ogasunarekin koordinatzea.

Azterketa juridikoak egitea eta hondakinak **beste autonomia erkidego batzuetan isurtzeko** baimenak ukatzea EAEn alternatibak daudenean.

**Ikuskapen-** eta **zehapen-**kanpainak.

## EREDUGARRITASUNA

### 2015 etik egindako aurerapenak

**e-administrazioa** sustatzea.

Zabortegei eta ekoizleei emandako **baimenak** aldizka berrikustea.

**1357/2014 Araudia** aplikatzeko irizpideen gida teknikoa.

Hainbat hondakin-korronteren **kategorizazio, kontabilitate eta trazabilitatea** hobetzea (inbentarioen metodologia hobetua).

Hondakinak **lekualdatzeari** buruzko sistema informatiko bat garatzea.

# 2020rako ERRONKAK

## 2020rako erronkak

### PREBENTZIOA



**Elikagaiak alferrik galtzeari** buruzko giden ezarpena sustatzea.

IEParen **“Elikadura zirkularra”** deritzan funtsezko proiektuarekin kolaboratzea.

Hondakinen **sorreraren araberako ordainketa** bultzatzea.

Borondatezko akordio bat sustatzea **ontzien** ekoizle eta banatzaileekin.

Hitzarmenak sinatzea prebentzioaren arloan funtsezkoak diren beste **EEZSK** (ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboak) batzuekin.

**Jardunbide egokiak, teknologia garbiak, bizi-zikloaren ikuspegia, berrerabilpena** eta **konponketa** industriaren arloan sustatzea.

## 2020rako erronkak

### GAIKAKO BILKETA ETA BEREIZKETA



**Gaikakoa ez den bilketa baztertzeko** sistemak sustatzea (errefusa-frakziorako edukiontzia, giltzarekin edo erabiltzailearen identifikazioarekin; atez ateko bilketa; ekoizle handien hondakinen bilketa, eta abar).

Hiri-hondakinen **Lurralde Planen** jarraipena egitea, EAEko 2020rako HPKParen helburuei begira.

**Garbigunetan** onar daitezkeen hondakinei buruzko arau tekniko bat prestatzea.

**Hondakin industrialen** gaikako bilketa sustatzea.

Banaketa-sektorea **AEEHen** gaikako bilketan inplikatzeko.

**Pilen** gaikako bilketan inplikaturako eragileekin batera lan egitea.



## 2020rako erronkak

### BERRERABILPENA, BIRZIKLAPENA ETA BALORIZAZIOA PRESTATZEA



**Zepen** Dekretu berria onartzea.

**Konpostak eta biohondakinek** nekazaritzan izan dezaketen erabilera aztertzea.

**EEHen** arloan aurrera egitea: erabilera berriak identifikatzea, arauen betearazpena kontrolatzea, AEEHen Mahaia abiatzea, eta abar.

Sailen arteko koordinazioa handitzea, korrante batzuei buruzko ekintzak ezartzeari begira (**araztegieta lohiak, konposta**, eta abar).

**BAT handiko hondakinen** balorizazio energetikoa sustatzea.

EAEko **zementu-lantegiak** bultzatzea euren hondakinetatik eratorzen diren erregaiak ahalik eta gehien erabiltzera.

Erabilera berriko araudia onartzea gai hauetarako: **papergintzako lohiak, galdaketako hareak eta birringailuen hondakinak**.

## 2020rako erronkak

### EZABAPENAREN OPTIMIZAZIOA



**Hondakin biodegradagarriak** isurtzeari buruzko legezko betekizunak betetzea.

Aurrera egitea **hiri-hondakin primarioen** zero isurpenerantz.

**Balorizatu daitezkeen korronteen** ezabapena murriztea.

Hondakinak zabortegira eramatearen bidez ezabatzeari buruzko **49/2009 Dekretua** berraztertzea, baloriza daitezkeen hondakinen isurpena mugatzeko.

**EAEtik kanpo ezabaten diren hondakinen** kopurua murriztea, horien tratamendua EAEn baldintza berdinetan egin daitekeenean.

## 2020rako erronkak

### EREDUGARRITASUNA ETA GOBERNU EGOKIA



**Kontabilitate**-sistemak hobetzea eta beste administrazio batzuekin adostea, urteko inbentarioak uztaila baino lehen argitaratuko direla bermatuz.

**EEZSKekin** lan egitea informazio eta helburuei buruzko jakinarazpena hobetzeko.

Irizpide juridiko objektiboak ezartzea hondakinen **lekualdaketak ukatzeko**, hierarkia eta gertutasun printzipioak oinarritzat hartuta.

Hondakinen sorrera kargatzen duten **zerga-aldaketak** onartzeko aukera aztertzea.

DMAPTaren **tramite** administratiboak **erraztea**.

# KONKLUSIOAK

## 01 AURRERAPEN-ERRITMO EGOKIA

Eskura dagoen informazioaren arabera, kontsideratzen da Planaren % **41,3 exekutatuta** zegoela 2016ko amaieran.

## 02 BOST HELBURU ESTRATEGIKOETATIK, HIRU LORTU EGIN DIRA

- Sortuta hondakinen % 60,5 **berrerabilpen, birziklapen edo balorizaziorako** prestatu da (2020rako helburua % 60 da), eta, hortaz, ezabapena optimizatu da (% 39,5 2016an; 2020rako helburua <% 40 da).
- Modu egokian egin da aurrera **eredugarritasun eta gobernu egokiaren** helburuan.
- Lortu da sortutako hondakinen kopurua % 6,8 murriztea, 2010 erreferentziazko urtetzat hartuta; beraz, bide erdia eginda dago, zeren 2020rako lortu behar den murrizketa % 10 baita.
- **Gaikako bilketak** badu hobetzeko tarte oraindik ere % 57,0 2016an; (2020rako helburua % 75 da).

## 03 OINARRIAK EZARRITA DAUDE PLANIFIKATUTAKO EKINTZAK BETETZEKO

- **ELIKAGAIEN ALFERRIKAKO GALERA ETA BIHONDAKINAK:** Jardunbide egokiak identifikatu dira elikagaien alferrikako galeraren inguruan; konpostatze komunitarioko instalazioak erregulatzeko Agindu bat onartu da; Foru planetan txertatzearen alde egin da.
- **HONDAKIN ESPEZIFIKOAK:** Ezagutza sortu da gai hauen inguruan: altzairutegietako zepak, amiantoa, portuetako hondakinak, itsasontziak desegitea, eta abar.
- **TRESNA EKONOMIKOAK:** “Hondakinen arloko tresna ekonomikoen diseinuari” buruzko dokumentu bat prestatu da; metodologia bat prestatu da hiri-hondakinen tasa kalkulatzeko; hondakin-kanon bat diseinatu eta Ogasun eta Ekonomia Sailarekin kontrastatu da, eta abar.

- **LANKIDETZA:** Hitzarmen bat sinatu da ECOEMBESeKin; borondatezko akordioak sinatu dira funtsezko sektoreekin (papergintza, galdaketa); araztegien eta ibilgailuen sektoreekin lan egin da, eta abar.
- **ISURPENA:** Zabortegetarako baimenak aldatu dira, baloriza daitezkeen hondakinen isurpena mugatzeko; azterketa juridikoak eta hondakinak beste autonomia erkidego batzuetan isurtzeko baimenak ukatzea EAEn alternatibak daudenean; ikuskapen- eta zehapen-kanpainak, eta abar.

## 04

### AURRERA EGIN BEHAR DA BIOHONDAKINETAN, EEHETAN ETA BESTE KORRONTE INDUSTRIAL BATZUETAN, GAIKAKO BILKETAN ETA BALORIZA DAITEZKEEN HONDAKINEN EZABAPENEAN, BESTEAK BESTE

- Azpiproduktuen Adierazpenaren bidea sustatzea.
- **Elikagaien alferrikako galera eta biohondakinak** murriztea, identifikatutako jardunbide egokiak sustatzearen bidez; sorreraren araberako ordainketa bultzatzea, eta abar.
- **Gaikakoa ez den bilketa baztertearen** alde egitea (errefusa-fracziorako edukiontzia, erabiltzailearen identifikazioarekin; atez ateko bilketa; ekoizle handien hondakinen bilketa, eta abar).
- Produktuaren ekoizlearen erantzukizun zabalduaren arloko betebeharrak betearaztea, hondakin, ontzi, AEEH, pila eta bestelakoen **EEZSKen** bitartez.
- **EEHen** arloan aurrera egitea: erabilera berriak, legearen betearazpenaren kontrola, eta abar.
- Hondakinak zaborteaira eramatearen eta betetze-lanak gauzatzearen bidez ezabatzea arautzen duen 49/2009 Dekretua berraztertzea, **baloriza daitezkeen hondakinen isurpena** mugatzeko.
- **Erabilera berriko araudia onartzea gai hauetarako:** papergintzako lohiak, galdaketako hareak eta birringailuen hondakinak.

## 05

### INFORMAZIO GEHIAGO

Txosten osoa IHOBEn webgunean eta euskadi.eusean  
Planaren berrikustea IHOBEn webgunean eta euskadi.eusean

